

**EGEF JARDUNAK, ARABAKO FORU ALDUNDIA. EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGEF 2014-2020
PROGRAMA ERAGILEA**



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"
Eskualde Ganapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

EP3. ETE-en lehiakortasuna hobetzea

OE 3.3.1. Produktu eta zerbitzuen garapenerako gaitasun aurreratuak sortu eta handiagotzeko laguntza.

AFA-03. BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUNA SUSTATZEA

Azalpena:

Arabian berrikuntza sustatuko duten proiektuak edo ekintzak gauzatzeko laguntza programa, honako hauek lortzen laguntzeko: ekonomiaren modernizazioa, produktibitatearen igoera eta Arabako produkzio ehunaren lehiakortasunaren hobekuntza.

Gauzatzeko egutegia:

2015-2022

Finantza alderdiak:

EGEF laguntzaren zenbatekoa: 2.965.488,68 euro

Arduraduna:

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saila - Ekonomia Garapenaren Zerbitzua

2014-2020 burutzapenaren adierazleak:

CO01 (laguntzak jaso dituzten enpresa kopurua): 365

2020ko deialdia:

Onuradunak dira sozietate egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten enpresa txiki eta ertainak, beren osaera juridikoa edozein dela ere, edo gutxienez lurraldean jardueraren zentro bat daukatenak (autonomoak barnean sartzen dira).

Hauexek dira diruz lagundu daitezkeen jarduerak: berrikuntza produktuan edo zerbitzuan; berrikuntza prozesuan; berrikuntza antolamenduan; berrikuntza merkatuan; berrikuntza 4.0 industriaren esparruan; berritzailetzat jotzen diren eta behar bezala argudiatuta dauden beste jardun batzuk.

Laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen aurrekontuko gastuen % 30 da, enpresako eta urteko 30.000 euroko muga izanik.

Foru dekretu honen ALHAOko esteka:

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2019/147/2019_147_04063_E.pdf